

Nerabeek eta gazteek interes handia dute kiroletan eta oso txikia politikan


Neskei gehien intesatzen zaiena medikuntza eta gai kulturalak dira eta mutilei, aldiz, kirolak

Elhuyar fundazioak "[Euskal Herriko gazte eta nerabeen zientzia eta teknologiaren pertzepzioa, 2011](#)" izeneko txostenean kaleratu dituen datuak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). 2011ko maiatza eta ekaina bitartean EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko 10 eta 18 urte bitarteko 2.061 ikasleri egindako elkarrizketetan oinarritu da txostena. Euskal Herriko nerabeen eta gazteen interesei buruzko ondorio batzuk atera ditu Gazteen Euskal Behatokiak, eta horiexek azalduko dira jarraian.

Txostenaren arabera, 10 eta 18 urte bitarteko gazte eta nerabeen bi herenek oso interes handia edo interes handia dute kiroletan (% 68,3k, hain zuzen ere). Interesak beherantz egiten du beste gai batzuei buruz galdetzen denean: % 50,4 oso interesatuta daude zineman, artean eta kulturean, % 48,3 medikuntzan eta osasunean, % 46,9 zientzian eta teknologian, % 43,2 ingurumenean eta ekologian, % 40 hezkuntzan, % 28,9 elikaduran eta kontsumoan, % 23,7 famatuen gaietan eta % 18,9 ekonomian eta enpresen gaietan. Interesik txikiena politikak pizten du: gazteen eta nerabeen % 14,1ek, soilik, dute oso interes handia edo interes handia politikan.

Dena dela, interes-maila ez da bera nesken eta mutilen artean: neskei gehien interesatzen zaizkien gaiak medikuntza eta osasuna eta zinema, artea eta kultura dira; mutilen kasuan, gehien interesatzen zaizkienak kirolak dira, alde handiz. Gainera, neskek mutilek baino interes askoz handiagoa dute hezkuntzan eta famatuen gaietan; mutilek, aldiz, neskek baino askoz handiagoa zientzian eta teknologian.

Hainbat gaitan oso interes handia edo interes handia duten 10 eta 18 urte bitarteko Euskal Herriko nerabeak eta gazteak, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Elhuyar fundazioaren datuak oinarri hartuta (2011)

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

